

73
positibo berri*
453
positibo guztira

128
positibo berri
1014
positibo guztira

31
hildako

405
ospitalizatuta

*Hernanin 13 Astigarragan 3

«Kontzientziatuta geunden familiaren berri genuelako; hemen ez zen gehiegi nabaritzen etenaldia»

Eider Oruezabala hernaniarra irailaz geroztik Eslovenian dago Erasmuseko ikasle bezala eta «ez dakigu nola bukatuko den kurtsoa».

HERNANI KORONABIRUSA

Arkitektura ikaslea da Eider Oruezabala Mateos hernaniarra, eta irailaz geroztik Ljubljanan dago, Eslovenian, Erasmus programan parte hartzen. Asmoa da ikasturte osoa bertan egitea, baina, Koronabirusa medio, «ez dakigu oso ondo nola bukatuko den kurtsoa», dio.

Ikasleak, neurriak nabaritzen aurrenekoak

Espero baino beranduago hasi ziren gaixotasunaren eragina nabaritzen, Oruezabalak aitortu duenez. «Italiatik hain gertu

egonda, espero genuen lehenago hasiko zirela neurriak hartzen. Baina, kasuak hona oso berandu iritsi ziren, eta konparazioa eginda, oso gutxi daude».

Dena den, hartu dira neurriak, Eslovenian ere. «Nabaritu genuen aurreneko gauza izan zen unibertsitatean desinfektanteak jartzen hasi zirela, leku guztietan, egun batetik bestera. Higiene neurriak asko zaintzen. Hortik bi egunetara, mezu bat bidali ziguten, esanez, klaseak eten egingo zirela bi astez. Euskal Herrian baino lehenago izan zen hori. Hasiara batean, martxoaren 23ra arte etengo zirela esan

zuten, baina orain, esan digute ez dakitela noiz arte izango den».

Neurriak zabaldu badira ere, pixkanaka izan da. «Unibertsitateko klaseak gelditu zirenean, kalean jendeak normal jarraitzen zuen. Taberna guztiak irekita zeuden, jatetxeak... Dena. Pixka bat kontzientziatuta geunden gu, jakinda Euskal Herrian egoera zein zen, nork bere familiaren egoeraren berri jakinda. Baina bestela, hemen ez zen nabaritzen gehiegi».

Eslovenian hobeto, Euskal Herrian baino

Hernaniarrak beste hiru ikaslerekin partekatzen du ikasle-pisua. Madrildo bat eta Alicanteko birekin. «Printzipioz, ondo gaude etxean», dio. «Ahal dugun gutxien ateratzen gara kale-



Eider Oruezabala Mateos Eslovenian dago.

ra. Klase batzuk online ematen dizkigute, baina ez denak. Beste batzuetan entregean bitartez funtzionatzen dugu. Baina ez dakigu nola bukatuko den kurtsoa».

Hala ere, bertan jarraitzeko asmoa dauka. «Egia esan, ez dut pentsatu etxera bueltatzea. Otsailean bueltatu nintzen bisitan, eta hona itzultzean, aireportuan (Veneziatik egin behar izan bainuen joan-etorria eta gero Veneziatik hona autobusa hartu) hegazkinetik jaisten zen guztiari sukarra hartzen zioten, ea dena ondo zegoen. Beraz, iruditu zitzaidan seguruagoa zela hemen geratzea. Gainera, he-

men egoera hobea da hain baino, nire ustez. Dena pasa arte hobe da hemen geratzea».

Hori horrela, mezua helarazi nahi izan die Eiderrek gertukoiei. «Lehenengo egunetan unibertsitate bidaltzen zizkiguten informazio mezuak eslovanieraz bidaltzen zizkiguten. Baina segituan jarri zen gurekin harremanetan gure nazioarteko laguntzailea, eta ingelesez bidali zigun informazioa. Nahiko lagungarria egin zaigu berarekin harremanetan egotea. Beraz, guraso eta familiari esan nahi nieke ondo nagoela, eta hemen dena nahiko lasai dagoela». K

«Apirilean egin behar ziren bidaiak udazkenera edo atzeratzea da gure gomendioa»

Hernani Bidaiak agentzia telefonoz eta atekak itxita ari da lanean.

«Egunez egun goaz orain ditugun konpromezuei irtenbidea emanez».

HERNANI KORONABIRUSA

COVID-19aren pandemiak eragin zuzena du bidaietan eta pertsonen mugimenduetan alarma egoeran. Mugen itxierak ere eragina du. Momentu honetan Hernani Bidaiak agentziak lanean jarraitzen du baina ez jendearen aurrean. «Ateak itxi ditugu eta telefonoz ari gara lanean barruan, baina ez aurrez aurre» dio Begoña Lujanbio agentziko

arduradunak.

Bezeroekin harremanetan daude. «Azken egunetan egoera oso aldakorra da. Gu saiatzen gara bidaiak ezeztatu beharrean, fetxaz aldatzen. Kasu batzuetan hori posible da eta besteetan ez» dio Begoña Lujanbio.

«Aste Santuko bidaiak aldatzen ari da jandea»

Esperantza da Aste Santuko denboraldia udazkenera igaro-

tzea. Aste gutxi geratzen da Aste Santurako eta badirudi aurten go bidaiak bertan behera geratuko direla. «Momentuz eguneguz egun goaz eta ari gara martxoarekin, hilabete honetan ditugun konpromezuekin. Egia da Aste Santurako jadanik ezin dela Estatu Batuetara bidaiatu, 30 eguneguz Europar Batasuneko herrialdeekin hegaldiak debekatu ditu. Estatu Batuetako eta beste bidai batzuk ere ezeztatu dira

oso gertu daudelako, baina gure aldetik, hegazkin konpainiak eta hotelak eguneguz egun goaz. Ezin da aurreikuspenik egin».

Maiatza eta ekaina oraingoz normal

Agentzien esperantza da egoera aldatzea eta ea jendeak opor horiek egutegian aldatzen dituen eta ez bertan behera utzi. «Opor horiek ea beste garai batera pasatzen diren. Hortan ari gara lanean». Jende asko ari da bidaiak eta oporrak atzeratzen.

Hala ere hemendik bi hilabeterako bidaiak ez dira mugitu. «Maiatzeko eta ekaineko bidaiak jendeak ez ditu ezeztatu eta aurrera doaz oraingoz. Martxoarekin ari gara lanean eta apirilean Italia eta Estatu Batuetara iragarrita zeuden bidaien etenarekin».



Hernani Bidaiak.

Begoña Lujanbio helarazi nahi duen mezua argia da. «Aste Santurako ez dira gauzak aldatu, baina gure gomendioa da bidaiak egutegian aldatzeko eta orain egin behar ziren bidaiak udazkenera pasatzea egutegian». K

KRONIKAK PUBLIZISTA BEHAR DU ORDEZKAPEN BATERAKO

Bidali zure CV-a, apirilaren 14ra arte:
kronika@kronika.eus

Dobera Euskara Elkartearen Larramendi 11 behean 20.120 HERNANI

ESKATZEN DA:
/ Euskara ondo menperatzea, hitzez zoin idatziz.
/ Lantaldean aritzeko gaitasuna.
/ Iniziatiba eta enpatia.
/ Publizitate edo komunikazio ikasketak izatea.

ESKAINIKO ZAJO:
/ Kontratu: sei hilabetetarako.
/ Eginkizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak.

BALORATUKO DA:
/ Urumea bailara ezagutzea.
/ Doberako bazkide izatea.
/ Tokiko hedabideak ezagutzea.
/ Publizista lanetan esperientzia.
/ Maketatze eta diseinu programen ezagutza.
/ Sare sozialak menperatzea.

Baldintzak betetzen dituztenez artean probak egin ondoren bat aukeratu da.

OGI BERRI OKINDEGIA

Rosa Morla

Kale Nagusia, 31
20115 ASTIGARRAGA
Tfn- 943 55 41 04 - 618 269 314
rmorlaluengo@yahoo.es

PEÑA sulabe

Okindegia - Janaridenda

Eguneroko zure beharrei erantzuteko, Kale Nagusian gaude.

Kale nagusia, 19 - Tel.: 943 55 23 98

ITXASPE

Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 665 735 224
20120 Hernani

EGURALDIA GAUR Ez da aldaketa handirik espero. Lainotza aldakorra izango da, tarteka lainotuta egongo da, tarteka eguzkitsua. **Min.6° / Max.16°**

BIHAR Iparraldeko haizea zakartu egingo da, euria pixkat egingo du eta temperatura nabarmen jaitsiko da. Euria, batik bat, egunaren lehen partean egingo du. **Min.6° / Max.11°**

ARGITARATZAILEA **DOBERA** EUSKARA ELKARTEA **LAGUNTZAILEAK** **Hernaniko Udala** **Astigarragako Udala** **Dobera Euskara Elkarte** **GOZUETAKO UDALA** **ARANOKO UDALA**

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreo Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauzez:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Egunero, arrisku haundieneko espazioak desinfektatzeko lanak

Galtzadak urarekin kamioi bidez garbituko dira garbikari tentsioaktiboa erabiliz eta desinfektatzailea aplikatu da lurrun bidez.

ASTIGARRAGA UDALA

Astigarragako Udalak laster arrisku haundieneko espazio publikoak desinfektatzeko lanak jarriko ditu martxan. Lan horiek egunero egingo dira. Herriarrek espazio publikoetan ibiltzeko duten debekua kontuan hartuta (baimendutako jardueretarako ez bada). Udalak arrisku haundieneko eremuak zehaztu ditu, hala nola: anbulatorioaren ingurua eta Errekatxoko zubia, etxebizitza tutelatuaren ingurua, herritar gehien ibiltzen den eremu eta pasabideak (farmazia eta janari denden inguruak, joan-etorri gehien duten kale eta pasabideak...).



Egunero egingo dituzte desinfekzio lanak.

Jarraibideen arabera egingo dira lanak

Desinfektatzeko lanak egingo dira osasun agintaritzak emandako jarraibideen arabera. Osagarri diren bi ekintza burutuko dira: lehenik, galtzadak urarekin kamioi bidez garbituko dira garbikari tentsioaktiboa erabiliz.

Ondoren, desinfektatzailea

aplikatuko zaie lurrun bidez eremu publikoetako osagai hauei: hondakinen edukiontzia, markesinak, lehenago aipatutako arrisku eremuetako hiri altzariak eta, oro har, gaixotasuna transmititzeko arriskua sor dezaketen bestelako osagaiak.

Horrekin batera, ahal den neurrian, koronabirus positiboa eman duten pertsonen etxpe

edo portalak desinfektatzeko lanak egingo ditu udalak (horrela eskatzen zaionean).

Desinfektatzailearen fabrikatzailearen bi ohar izan behar dira kontuan: batetik, desinfektatzaileak 24 ordu egiten ditu aktibatuta; bestetik, aplikatu eta lehen 10 minutuetan ez dira ukitu behar tratatutako azalera eta osagaiak. **K**

Lehiaketa, herritarren ideiekin

Bidali bideoa, eta itxialdia bukatzean, gustukoena zein den bozkatuko da.

URUMEA LEHIAKETA

Itxialdian herritarrek berrogeialdia pasatzeko ekintzak egiten ari dira. Kasu batzuetan, emanaldiak prestatzen, herritarrei balkoitik edota internet bidez eskaintzeko. Beste kasu batzuetan, norberak egiteko erronkak proposatu dituzte. Horien guztien berri jasoko du Kronikak, bere webguneko *Koronabirusa etxetik* izeneko atalean, eta lehiaketa jarriko du gero, martxan. Zure proposamenak bidali ditzakezu Kronikako telefono mugikorrera, whatsapp bidez: 688 660 714. Webgunean eta sare sozialetan partekatuko dira eta berrogeialdia bukatzean, lehiaketa egingo da gustukoena aukeratzeko. **K**

'Maialen' trainerua ez da aurten uretaratuko

Arraun Elkarteak adierazi du ohar baten bidez «zailtasunak» izan dituztela bidean eta txalupa zintzilikatu behar izan dute.

HERNANI ARRAUNA

Urte batzuk jarraian uretan ibili eta gero aurtengo udaran *Maialen* trainerua ez da uretaratuko eta Hernani Arraun Elkarteak erabaki du txalupa zintzilikatzea. Ohar baten bidez adierazi du klubak erabakia. «Ohar honen bidez jakinarazi nahi dizuegu, pena haundiarekin bada ere, aurten Hernaniko Arraun Elkarteak ezingo duela emakumeen trainerua uretaratu. Zailtasunak izan ditugu bidean, eta azkenean erabaki dugu onena izango dela aurtengo denboraldian ez lehiatzea. Edonola ere,

lanean jarraituko dugu datorren denboraldiari begira, berriro ere traineru berdea uretan ikusteko».

Etxean jarraitzen dute entrenatzen datorren denboraldiari begira

Guztion moduan, egun arraroak bizitzen ari dira, koronabirusaren ondorioz. «Hala ere, gure arraunlariek etxean entrenatzen jarraitzen duten moduan, zuzendaritzakook ere lanean dihardugu, eta ahal dugun guztia egingo dugu datorren denboraldian berriro ere emakumeen trainerua osatzeko. Eskerrak eman nahi dizkizuegu bidelagun izan zaituztegun guztiei, zuen babesa eta laguntzengatik, eta espero dugu gertatutakoa ulertuko duzuela. Aurrerantzean ere zuek gurekin lanean jarraitu nahi izatea da gure desioa». **K**

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzulitako garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Burgesiaren ofentsiba gelditu!

Krisi egoera larria eta ez-ohikoa bizi dugu egun. COVID-19 birusaren hedapenak mundu mailako osasun larrialdi egoera sortu du, milaka hildako eta kutsatu utziz herrialde askotan. Egoera horretan, beharrezkoa da mediku eta osasun adituen irizpideak lehen lerroan jartzea eta hartu behar diren neurri guztiek irizpide horiek jarraitzea. Arduraz jokatzeko garaia da.

Egoeraren larritasuna ez da horretara mugatzen. Izan ere, osasun krisialdiarekin batera, goi burgesiaren ofentsiba politikoa etorri da. Horren aurrean, GKStik alarma egoeraren aurkako kanpaina politikoa abiarazteko hautua egin dugu. Salaketa kanpainaren helburua goi burgesiaren ofentsiba nabarmentzea da. Izan ere, alarma egoera ez da kontzeptu neutral bat, politikoa baizik, eta horren atzean salbuespen egoera ezkututzen da. Hortaz, alarma egoera baino, 'salbuespen egoera' da bizi duguna, eta banketxe eta enpresari

haundiak dira salbuespen egoera hori arautzen ari direnak.

Beharrezkoa iruditzen zaigu gertatzen ari dena termino horietan seinatzea eta salatzea; egoera latzak arduradunak di-tuelako, eta printzipio sozialistetan oinarritutako proletar-goaren antolakuntza politikoa gaurdanik garatzea. Kanpaina lau puntutan ardatzuko dugu:

1. Burgesiaren salbuespen neurri politikoa bertan behera uzteko eta askatasun politikoa berrezartzeko urgentzia.

2. Sozialdemokraziaren izaera kolaborazionista alarma egoeraren aurrean.

3. Koronabirusaren kausen, dimentsioen eta eraginen egia ezagutzeko premia.

4. Berehalako zereginak alarma egoeraren aurrean.

Eta kanpainara batzeko deia egiten dugu, egoera honetan ezartzen ari den ofentsiba salatzera.

Jon Zumalabe Irastorza

Goizuetan familia bat kuarentenan

GOIZUETA KORONABIRUSA

Goizuetako Udalak jakin du Goizuetako familia bat kuarentenan dagoela, nahiz eta oraindik ez duen inork positibo eman. Probak egiteko zain daude. «Etxean gelditzeko eskatzen da mesedez».

Zaintza Taldea sareak laguntzen ari da

HERNANI URUMEA HERRIGUNEA

Urumea Herriguneak jarri du martxan Zaintza Taldea. Laguntza behar duenak, 690 145 760 zenbakira deitu dezake; edo whatsapp bidez idatzi, 691 651 850 zenbakira.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† PAKITA ALONSO SANCHEZ
Herengun hil zen Hernanin, 83 urte zituela,
Elizako eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

"Ez agurrik ez adiorik gero arte baizik.
Gure bihotzetan. Betiko maite zaitugu"



Senarra: Julian Zapiain; seme-alabak: Julian eta Maite, Jose Mari eta Inma, Juan Ignacio, Mikel eta Arantxa, Xabier eta Idoia; bilobak: Tamara eta Gaizka, Ivan eta Nagore, Miren eta Joseba, Julen eta Lucia, Gorka, Katrin; birbilobak: Maren eta June eta gainerako ahaideak.

Familiak, jasotako doluminak eskertzen ditu eta COVID-19ko alarma egoera honetan, jakinarazten dizue, gure senidea agurtzeko ekintza denak, senitardean izango direla.

Hernanin, 2020ko martxoaren 25ean

IRAGARKI MERKEAK

ONDDI AKADEMIAn streaming bidezko klaseak eskaintzen ditugu DBH eta Batxilergoan.

Info gehiago: 688719571 edo onddiakademia@gmail.com

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)